

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2018.

Joan den urriaren 29an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak honako erakunde hauen 2018ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena onartu zuen: Arabako Foru Aldundia (AFA), bere foru erakunde autonomoak (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, Gaztediaren Foru Erakundea eta Arabako Foru Suhiltzaileak) bere 8 sozietate publikoak eta foru fundazioak (Artium, Santa Maria Katedrala, Añanako Gatz Harana eta Kirolaraba).

HKEEk **aldeko iritzia** eman du **urteko kontuen gainean** kasu guztietan.

2018ko abenduaren 31ko finantza egoerari dagokionez, berriz, HKEEk azpimarratu du 2018an gastu arruntak gora egin badu ere, 2017ko ekitaldiaren aldean sarrera arruntek izan duten igoerak **ekitaldiko berezko eragiketa arrunten kontzeptuko 114,2 milioi euroren emaitza eragin duela. Diruzaintza Geldikinak 23,5 milioi euro egin du gora** eta guztizko zorpetzeak **14,5 milioi euro egin du behera**, Sozietate Publikoak barne hartuta.

Gainera, adierazi du Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Artekaritza Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteari igorri zitzaizela eta horiek ez dutela salbuespenik adierazi.

Bai Aldundiak ba erakunde autonomoek eta sozietate publikoek zuzentasunez bete dute ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz Diputatuen Kontseiluak 704.797 euroren gastuak baliokidetu dituen, Kontuhartzaitzak txosten negatiboa jaulkia zuela. Gainera, Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak jarduera eta aisialdiko zerbitzuak kontratatu ditu publikotasun eta lehia printzipioak bete gabe, guztira 85.726 euroren zenbatekoan.